

## Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:  
Zazpi gaitasun-eremuetan oinarritutako lanbide-profila**



### **Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa**

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.

<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Dermatologiako Zerbitzua – Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Prestakuntza Espezializatuko

Unitatea. Barakaldo. Bizkaia. [CC BY-NC-ND](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)



## Dermatologiako Zerbitzua

**Dermatologia Mediko-Kirurgiko eta Benereologiako Zerbitzuak** espezialitatean prestakuntza integrala eskaintzen du, hain zuzen ere, giza azalaren eta horri erasaten dioten gaixotasunen ezagutza, eta gaitz horiek prebenitzeko eta larrazala babestu eta suspertzeko metodoak.

Jarraian hauek adierazten dira:

- Nor gara
- Non gaude
- Prestakuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (Errotazioak)
- Ikerkuntza
- Prestakuntzaren ebaluazioa



## Nor gara



**Zerbitziburua:**  
**Jesús Gardeazabal García dk.**



**Tutorea:**  
**Juan Antonio Ratón Nieto dk.**



**Tutorea:**  
**José Luis Díaz Ramón dk.**

Zerbitzua 1975 urtean sortu zen, **Dermatologia Mediko-Kirurgiko eta Benereologiako Batzorde Nazionalak** espezialitaterako diseinatutako prestakuntza-programa osorik eskaintzen du, eta 1982. urteaz geroztik espezialisten prestakuntzarako akreditatuta dago, urteko 2 plaza eskaintzen dituelarik.

Urte horietan, honako hauek zuzendu dute gure zerbitzua: José Luis Díaz Pérez dk. 2010. urtera arte; horrezkero, Jesús Gardeazabal García doktoreak du ardura.

### Zerbitzuaren garapenean gertakaririk nabarmenenak hauek dira:

- 1977. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateak Irakaskuntza Unitate bat sortu zuen Gurutzetako Ospitalean.
- 1982. urtean, espezialistaren titulua lortzeko BAME medikuak hartzen hasi ginen.
- 1987: Fotobiologia-Fototerapia, Larruazaleko Alergiak, Melanoma, Anpuluzko Gaixotasunak eta Larruazaleko Linfomak Unitate monografikoen sorrera
- 1993: Euskal Herriko Unibertsitatearen Biologia Zelular eta Molekular Departamentuarekin elkarlanaren hasiera. Horri esker, emaitza gogobetegarriak ekarri dizkiguten bi ikerketa-ildori eutsi ahal izan diegu melanoma eta linfoma esparruetan.
- 1994: garai hartako zerbitziburua José Luis Díaz Pérez jaunak Euskal Herriko Unibertsitatearen Dermatologia Katedra lortu zuen (UPV/EHU)



- 1994-2010: beste zenbait unitate monografikoren sorrera
- 2012: Laser bidezko Plataforma lesio baskularren tratamendurako.
- 2012: Mohs Kirurgia praktika klinikoan txertatzea
- Parte hartze aktiboa Biocrucesen ikerketa-proiektuetan: Minbizi arloan, Tumore-markatzaile eta kimioerresistentzia taldean (talde egonkorra): Taldeburua: Jesús Gardeazabal García.
- Diziplina anitzeko taldeak: parte hartze aktiboa anomalia baskularrak, melanoma eta gaixotasun autoinmuneak dituzten pazienteen diziplina anitzeko arreta-taldeetan.

Hauek osatzen dute gure lan-taldea:

- ❖ 1 zerbitzuburu
- ❖ 1 atalburu
- ❖ 11 mediku adjuntu
- ❖ 5 mediku BAME Dermatologia Mediko-Kirurgiko eta Benereologian prestakuntza-aldian
- ❖ 4 erizain.
- ❖ 2 administrazioko laguntzaile

Zerbitzuak honako lan-esparru hauek ditu:

- ✓ 6 gela eguneko kontsultetarako
- ✓ 1 itxarongela kontsultetarako
- ✓ 1 bilera-gela.
- ✓ 1 operazio-gela , eguneroko interbentzio kirurgiko txiki eta laser bidezko tratamenduak egiteko.
- ✓ 1 kontsulta-gela Azaleko Alergia Unitatean
- ✓ 1 kontsulta-gela terapia fotodinamikoaren tratamendurako
- ✓ 1 erizaintzako bulegoa
- ✓ 1 Dermatologiako zerbitzuburuaren bulegoa
- ✓ 2 idazkaritza-bulego
- ✓ 1 biltegi-aldagela
- ✓ 4 gune fototerapiako unitate eta fotobiologiako proba berezietarako.
- ✓ Operazio-gela bat erabiltzeko aukera, Mohs-en kirurgiarako ospitalearen eraikin nagusian .
- ✓ Gaixotasun dermatologikoak dituzten gaixoen ospitaleratzea:Ospitaleko 3. solairuan.



- ✓ Dermatologia anbulatorioko zerbitzuak (Kontsulta hierarkizatuak) ematen dira Lehen Mailako Arretako Zentro hauetan:

1. Portugaleteko Anbulatorioa
2. Santurtziko Anbulatorioa
3. Zallako Anbulatorioa
4. Ortuellako Anbulatorioa
5. Barakaldoko Anbulatorioa
6. Sestaoko Anbulatorioa
7. Astrabuduako Anbulatorioa

Urteko jarduera hemen dago eskuragarri:

**[URTEKO MEMORIA EZKERRALDE ENKARTERRI GURUTZETAKO ESI](#)**



## Non gaude

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Gurutzetako Plaza z.g. Barakaldo 48903.  
Barakaldo, Bizkaia  
[Ikusi ospitalea Google Maps aplikazioan](#)

Dermatologia Zerbitzua Gurutzetako Unibertsitate  
Ospitalean dago:

**Kanpo kontsultak 2 eraikineko beheko solairua**  
Idazkari administraria hauxe da:  
**Begoña López Aguirre**



Harremanetarako telefonoa: +34-94.600.6149

Posta elektronikoa: [secretaria.dermatologiacruces@osakidetza.net](mailto:secretaria.dermatologiacruces@osakidetza.net)





## Prestakuntza eskaintza

Gure zerbitzuaren antolamenduak eta bertan garatzen diren askotariko jardura asistentzialek ahalbidetzen digute espezialisten prestakuntza bermatu ahal izatea espezialitateko alor nagusietan.

- A. Melanoma Unitatea. Jarraipena. Tratamendua. Ikerketa-ildo oinarrizko eta klinikoak.
- B. Fotobiologia eta Fototerapiako Unitatea
- C. Larruazaleko Linfometako Unitatea. Ikerketa-ildo oinarrizko eta klinikoak.
- D. Dermatologia Pediatrikoko Unitatea. Ikerketa-ildo klinikoak.
- E. Larruazaleko Alergietako Unitatea
- F. Gaixotasun Anpuluaren Unitatea
- G. Laser Dermatologikoa. Laser bidezko Kirurgia eta Laser Baskularreko Unitatea
- H. Mohs Kirurgiako Unitatea
- I. Terapia fotodinamikoa
- J. Teledermatologia
- K. Hidradenitisaren unitatea
- L. Sexu-transmisiozko infekzioen Unitatea

### **Gainera, arreta berezia egiten diegu patologia eta prozedura konplexu hauei:**

1. Psoriasis
2. Fotodermatosiaren diagnostiko teknika aurreratuak
3. Patologia dermatologikoa Gaixotasun Autoimmuneetan
4. Anomalia baskularrak dituen pazienteak
5. Kirurgia dermatologikoa

Prestakuntza-aldiak eskaintzen dizkiegu beste zentro batzuetatik datozen profesionali:

- Larruazaleko Alergia Unitatea, Alergia eta Laneko Medikuntzako egoiliarrei.
- Dermatologiako ospitale-kontsultak eta Laser Unitatea, Kirurgia Plastikoko egoiliarrei.
- Osasun Zentroetako kontsulta hierarkizatuak, Familia eta komunitateko medikuntzako egoiliarrei.
- Aurreko ataletan azaldu diren unitate asistentzialak, Dermatologiako egoiliarren prestakuntzarako beste zentro batzuetan ez daudenak.



Informazio gehiagorako, jo ezazu gure zerbitzuen katalogora:

[Ospitalea > Zerbitzuen katalogoa > DERMATOLOGIAKO ZERBITZUA.](#)

Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusi irakaskuntza-jarduerak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztien oinarrizko prestakuntza osatzeko. Ikastaro gehienak nahitaezkoak dira azken titulazioa lortzeko.

Ospitaleak **Saio Orokorrak** burutzen ditu hilero asteazken batean edo bitan, 08:30ean areto nagusian. Saio horiek funtsezkoak dira prestakuntza integrala lortzeko, espezialitatea edozein izanda ere, alde batetik, interes bereziko kasu klinikoei buruz ikasten delako, beste batetik, Ospitalearen, zerbitzuen edo unitateen funtzionamendua ezagutzeko balio dutelako – bai eta beren arteko erlazioa zein den ere– eta bukatzeko, hainbat batzorderen jarduera garrantzitsuaren berri ematen dutelako.





## Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)

### 2. eranskina.- BAMEen ERROTAZIO-EGUTEGIA DERMATOLOGIAN

# BAME ERROTAZIOAK DERMATOLOGIA GUO

R-1				R-2			R-3			R-4			
Bar Med	Gax InfK	L M A	K - 4	Gaix Auto	Parch K-1	KP	K-8 kirur	KAN ERRT	K-2	HC I U	Anbt	Laser TFD HS ITS	Kont. Prop.
2	2	2	6	2	4	6	5	3	4	3	3	3	3

Hilabeteak guztira

### 1. urtea

1. **Bar Med.:** Barne Medikuntzako Zerbitzuaren ospitalizazioko solairua
2. **Gaix Infk:** Gaixotasun Infekziosoetako Unitatearen ospitalizazioko solairua
3. **AP:** Anatomia Patologikoko Zerbitzua. Dermatopatologia.
4. **K-4:** Dermatologiako Zerbitzuaren 4. kontsulta (Dermatologia Orokorra + Melanoma/Fotobiologia Unitatea)

### 2. urtea

1. **Gaix Autoim:** Barne Medikuntzaren Gaixotasun Autoimmuneetako Unitatearen kanpo-kontsultak
2. **PCH:** Larruazaleko Alergien kontsultak. Azal gaineko Probak
3. **K-1:** Dermatologiako Zerbitzuaren Kontsulta 1 (Dermatologia Orokorra.)
4. **KP:** Kirurgia Plastikoko Zerbitzua



### 3. urtea

- |  |
|--|
| 1. <b>K-8:</b> Dermatologiako Zerbitzuaren Kontsulta 8 (Larruazaleko Linfomak, Anpuluako Gaixotasunak eta Dermatologia Orokorra)   |
| 2. <b>Kirurgia:</b> Interbentzio Kirurgikoak Dermatologiako kontsultetan (anestesia lokal eta loko-erregionala)                    |
| 3. <b>K-2:</b> Dermatologiako Zerbitzuaren Kontsulta 2 (Dermatologia Pediatrikoko Unitatea, Trikologia eta Dermatologia Orokorra). |
| 4. <b>Kan. Errt.:</b> Kanpo Errotazioak  |

### 4. urtea

- |  |
|--|
| 1. <b>HC/I/U:</b> Pazienteen Arreta kontsulta-orrietan, Ospitaleratzeak eta Dermatologiako Larrialdiak |
| 2. <b>Laser:</b> Laserterapiako Kontsulta (CO 2 laserra, laser baskularra)                             |
| 3. <b>TFD:</b> Terapia Fotodinamikako kontsulta  |
| 4. <b>Anbulatorioa:</b> Dermatologia Anbulatorioko Kontsulta (ospitalez kanpoko)                       |
| 5. <b>HS:</b> Hidradenitis zornetsua   |
| 6. <b>ITS:</b> Sexu transmiziozko Infekzioak   |
| 7. <b>Kontsul. Prop:</b> paziente dermatologikoen kudeaketa ospitaleko kontsulta batean                |

Egoiliarrek kanpoko errotazioak egin ditzake estatuko zein nazioarteko hainbat zentrotan. Irakaskuntzako Batzordeak eta gure zerbitzuak laguntza ematen dute egoiliarren prestakuntzarako interesekotzat jotzen diren zentroetan aritu ahal izateko. Urte hauetan guztietan, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Dermatologia Zerbitzuko egoiliarrek prestakuntza-aldiak egin dituzte kanpok zentro askotan, besteak beste:

- Dermatologia Zerbitzua. Ramón y Cajal Ospitalea Madril.
- Dermatologia Pediatrikoko Zerbitzua México DF Ospitalea
- Dermatologia Zerbitzua, Mayo Clinic, Rochester. Minnesota, AEB.
- Dermatologia Zerbitzua, St. Pau Ospitalea, Bartzelona.
- Dermatologia Zerbitzua, Sagrado Corazón Ospitalea, Bartzelona.
- Dermagune. Gipuzkoako Poliklinika. Donostia
- Dermatologia Klinikoko Unitatea. Teknon Klinika. Bartzelona.
- Dermatologia Zerbitzua, St. Thomas Hospital. Londres, Erresuma Batua



- Dermatopatologia-zerbitzua (San Frantziskoko Unibertsitatea, AEB)
- Dermatologia Pediatrikoko Zerbitzua, Bordeleko Ospitalea, Frantzia

### **Hauek dira zerbitzuaren berezko prestakuntza-ikastaroak:**

#### **IKASTARO, BILERA ETA BILTZARRAK BAME1**

- Dermatologia eta Benerologia Espainiako Elkartearen VNAR Atalaren bilerak (2/urtean)
- Residerm: dermatologiaren sarrera
- Dermatopatologia ikastaroa: oinarritzko maila (Luis Requena dk., Jiménez Diaz Fundazioaren Anatomia Patologikoaren gela, Madril).

Bilera eta Biltzar guztietan, ahal dela, poster edo ahozko komunikazio bat aurkeztu beharko da.

#### **IKASTARO, BILERA ETA BILTZARRAK BAME2**

- Dermatoskopia oinarritzko ikastaroa (Susana Puig eta Josep Malvehy dk. Clínic Ospitalearen Dermatologia Zerbitzua. Bartzelona)
- Dermatologia eta Benerologia Espainiako Elkartearen VNAR Atalaren bilerak (2/urtean)
- AEDV Biltzar Nazionala (1/urtean)
- Dermatologia Pediatrikoaren Espainiako Taldearen bilera
- Fotobiologiaren Espainiako Taldearen bilera
- Kontaktuzko Alergien Espainiako Taldearen bilera
- Dermatopatologia lan-taldearen bilera

Bilera eta Biltzar guztietan, ahal dela, ahozko komunikazio bat aurkeztu beharko da.

#### **IKASTARO, BILERA ETA BILTZARRAK BAME3**

- Dermatopatologia ikastaroa: maila aurreratua (Luis Requena dk., Jiménez Diaz Fundazioaren Anatomia Patologikoaren gela, Madril).
- Dermatoskopia ikastaro aurreratua (Susana Puig eta Josep Malvehy dk. Clínic Ospitalearen Dermatologia Zerbitzua. Bartzelona)
- Onkologia Dermatologikoa Ikastaroa (Onkologiako Valentzia Institutua, IVO, Valentzia).
- Dermatologia eta Benerologia Espainiako Elkartearen VNAR Atalaren bilerak (2/urtean)



- AEDV Biltzar Nazionala (1/urtean).
- Egoiarraren errotazioen arabera, aukera izango du lan-talde hauen bilera nazionalera joateko : Fotobiologia, Kontaktuzko Alergia , Pediatria, e.a.

Bilera eta Biltzar guztietan, ahal dela, poster edo ahozko komunikazio bat aurkeztu beharko da.

#### **IKASTARO, BILERA ETA BILTZARRAK BAME4**

- Dermatopatologia ikastaroa: maila aurreratua (Luis Requena dk., Jiménez Díaz Fundazioaren Anatomia Patologikoaren gela, Madril), aurreko urtean egin ez bada.
- Dermatoskopia ikastaro aurreratua (Susana Puig eta Josep Malvehy dk. Clínic Ospitalearen Dermatologia Zerbitzua. Bartzelona), aurreko urtean egin ez bada.
- Onkologia Dermatologikoa Ikastaroa (Onkologiako Valentziar Institutua, IVO, Valentzia), aurreko urtean egin ez bada.
- Dermatologia eta Benerologiako Espainiako Elkartearen VNAR Atalaren bilerak (2/urtean)
- AEDVren Biltzar Nazionala (1/urtean).
- Egoiarraren errotazioen arabera, aukera izango du lan-talde hauen bilera nazionalera joateko : Fotobiologia, Kontaktuzko Alergia , Pediatria, e.a.

Bilera eta Biltzar guztietan, ahal dela, poster edo ahozko komunikazio bat aurkeztu beharko da.

#### **Dermatologiako Zerbitzuaren saio klinikoak:**

- Saio ikonografikoak zerbitzuko kasuen eta artxiboko argazki klinikoak eta dermatoskopikoak berrikusteko
- Zerbitzuaren saioa: berriro aztertzen dira ospitaleko kontsulta artekoak, ospitaleratutako pazienteak eta kontsulten asteko kasurik nabarmenenak. Zerbitzuaren antolamenduari buruzkoak. Aurkezteko edo argitaratzeko moduko kasuak...
- Saio Klinikoa: interes klinikoa duten artatutako kasuak eta horien berrikuspen bibliografikoa
- Saio bibliografikoa: fakultatibo zein egoiarrari esleitutako argitalpen nabarmenenen iruzkinak.
- •Biltzar/bilera zientifikoaren saioak : zerbitzuko kide guztiek bilera zientifiko bakoitzean azaldu beharreko kasuak prestatzea.



## **Dermatologiako Zerbitzuan, egunero dago saio bat (8,15 - 9,15)**

Saioen egutegia aldian-aldian helarazten da, eta hauek hartzen ditu barne:

- Saio ikonografikoak argazki klinikoak eta bilera zientifikoetan aurkeztu behar diren kasuak aztertzeko. Bilera zientifikoetara eraman aurretik, zerbitzuan erakutsi behar dira aurkezpena eskatutako baldintzetara egokitzeko: bete beharreko denbora, edukia behar bezala komunikatzeko aurkezpen-formatu egokia, edukiaren orrazketa zientifikoki zuzena edo garrantzizkoa dela bermatzeko... e.a.
- Bilera, ikastaro edo biltzar ondoko saioak: bilera eta ikastaro horietan parte hartzen duten fakultatiboek laburpen bat aurkeztuko duten ondorengo egunetan, alderdirik nabarmenenak azalduz.
- Anatomia Patologikoaren saioa: interes anatomopatologiko duten kasuak berraztertuko dira interes klinikoko zalantzak argitzeko. Fakultatiboak animatuko ditugu Dermatopatologiaren gaineko kasuak ere landu daitezen, zertarako eta Dermatologiaren esparru horren inguruko prestakuntza finkatu eta hobetzeko. Kasurik nabarmenenak Anatomia Patologikoko Zerbitzuarekin batera jorratuko dira baterako saioetan.
- Interes kliniko saioak, Farmazia Industriak edo beste osasun-eragile batzuek antolatutak, betiere, zerbitzuko arduradunek interes klinikotzat jotzen badute. Horren barruan daude Saio Interaktiboak Dermatologiako beste zerbitzu batzuekin.
- Beste zerbitzu batzuetan edo kanpo errotazioan jardun duten egoiliarrek errotazioaren alderdirik nabarmenenak azalduko dituzte saio kliniko batean. Kasurik interesgarrienak, tratamendu aipagarriak, antolamendu-, epidemiologia- edo prestakuntza-alderdi adierazgarriak, e.a.
- Saioak ospitaleko beste hainbat zerbitzutako profesionalekin edo beste osasun-erakundeekin, betiere, Zerbitzuko profesionalen gaitasunak eta trebetasunak eguneratzeko baliogarriak badira.



## Ikerkuntza

[Biocruces Ikerkuntza Institutuaren](#) sostengua du Ospitaleak ikerketarako.

Hauek dira zerbitzuak zuzentzen dituen edo sarean lankidetzan diharduen ikerketa-lerroak:

- ✓ Minbizi Arloa Tumore markatzaile eta Kimioerresistentzia taldea (egonkorra); taldeburua: Jesús Gardezabal García. Lan-ildoen deskripzioa: suszeptibilitate-geneak larruazaleko melanomari, genomika eta proteomika, markatzaile morfologiko berriak, H1 antagonisten eragina melanoman, larruazaleko limfomaren azterketa prospektiboak.

Halaber, era aktiboan parte hartzen dugu Saiakuntza Kliniko ugaritan, gaixotasun dermatologikoen alorreko medikamentu berriak frogatzen.

Egoiliarra pixkanaka sartzen da ikerketa-lanetan eta prestakuntzako bigarren urtea bukatzen duenean doktorego-tesia hasi ahal izango du.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio xeheagoa hemen duzue:

### [MEMORIA ZIENTIFIKOA](#)





## Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da eta ikasketa erraztera zuzenduta dago, beraz, indarrak eta ahultasunak antzeman eta hobekuntza planak ezarriko ditu. “**Ebaluazio formatiboa**” deitutako ebaluazio mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat iturri anitzetik lortu eta hainbat ikuspegi izan ditzake (gainbegiralearen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, **Urteko Ebaluazio Batzordeak** txosten bat lantzen du aho batez, eta bertan, egoiliarraren indarrak eta hobetzeko arloak (egongo balira) adierazten dira. Gaitasunetan oinarritutako txosten honek ezinbestean egindako ikastaroen egiaztagiriarekin batera “**Egoiliarraren Urteko Txostena**” osatzen dute. Tutorea prestakuntza prozesu guztiaren kudeaketaren arduraduna da eta Urteko Txostena emango dio ikasleari.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Alergia Zerbitzuko BAMEek (Barruko Medikueko Egoiliarrak) lortu beharreko gaitasunak, Ospitaleko irakaskuntza Batzordeak zehaztutakoaren arabera:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientea zaintzea eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa
5. Osasun sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (Analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Asistentzia- eta irakaskuntza-gaitasunak, espezialitatearen beraren ikerketa gaitasunekin batera, hemen biltzen dira: [\*\*Dermatologia espezialitatearen programa ofiziala \(SCO/2754/2007 Agindua\)\*\*](#)



### **Guruzeta Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio sistema orokorra<sup>1</sup>.**

[Irakaskuntza Batzordeak](#) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio sistema zuzentzen dute. Sistema hori Guruzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den **“Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua”** proiektuaren parte da. **Ebaluazio metodoak** hauek dira:

- Txandatzeko bakoitzaren Gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, Gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Guruzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredu)
- Tutorearekin aldi behingo elkarrizketak (gutxienez urtean bi)
- Autoebaluazioa
- Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da) bi alderdi hauek sartzen ditu: jasotako gaitasunen gaineko hausnarketa eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin erlacionatutako beste ekintzen kuantifikazioa
- Gaitasunetan oinarritutako Tutorearen urteko txostena
- Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

### **Egoiliarren ebaluazioa jasotako Prestakuntzaren gainean.**

- Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei gogobetetze inkesta bat bidaltzen die.
- Bi urtean behin, otsaila eta martxoaren bitartean, Guruzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hau orain dela 20 urte egiten da. Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaie.

### **Irakaskuntzako Batzordeak onartutako Dermatologiako zerbitzuaren berezko metodoak,**

Zerbitzua ere ebaluazio-metodo hauetatik baliatuko da:

- Prestakuntza Memoria.
- Gaitasunen arabera egituratutako galdetegiak
- Tutorearen eta egoiliarren arteko elkarrizketa.

---

<sup>1</sup> Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberrí M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J y González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (Supl 2): S62. Disponible en: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



## DERMATOLOGIA